




KULTURA ETA JASANGARRITASUNA INPLEMENTAZIORAKO GIDA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



KULTURA ETA JASANGARRITASUNA INPLEMENTAZIORAKO GIDA

Aurkezpena 3

Blokea 1: Eztabaida teorikoa eta auziaren egungo egoera 4

KULTURAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ARTEKO BINOMIOA 4

KULTURA ETA JASANGARRITASUNA EGUNGO AGENDA POLITIKOAN 5

Nazioarteko eremua 5

Eremu estatala 10

Eremu autonomikoa 10

Blokea 2: Inplementaziorantz. Jasangarritasuna kultura-sektorean 13

JASANGARRITASUNAREN GAINEKO EZTABAIDAREN BILAKAERA 13

JASANGARRITASUNA INPLEMENTATZEKO IKUSPEGIAK 14

EKINTZA-GIDA PRAKTIKOA 16

Kultura-erakunde eta -jardueren sailkapena 17

Gomendioak ingurumen-eraginaren eremuen arabera sailkatzea 19

Ekintza-gida 20

Inplementaziorako erremintak 21

Blokea 3: Hausnarketak eta ondorioak 27

Erreferentziak 29



AURKEZPENA

Jasangarritasuna da munduko garapenaren aurrerapenaren gaineko eztabaidaren ardatza, eta funtsezko gai bat bihurtu da agenda politiko nazional zein internazionalen. Egungo testuinguruak agerian uzten du klima-krisiarengatiko kezka areagotuz doala munduko iritzi publikoaren artean, eta hedadura handiko mugimendu sozial ekologisten gorakada dugu horren erakusgarri.

Gauzak horrela, eremu guztietatik egungo premiei erantzun jasangarriak emango dieten soluzioak bilatzeko erronkari heldu behar diogu, betidanik onartu diren ikuspegi eta perspektibak zabalduz.

Kulturak eta garapen jasangarriak interdependentzia-lotura bat izan dute betidanik elkarren artean, alderdi bikoitz batetik indartzen dena. Lehenik eta behin, kultura funtsezko eremu bat da, garapen jasangarria sustatzeaz gain sormen-soluzio berritzaileak agertzea errazten duena jasangarritasun globalaren premiaren aurrean. Bigarrenik, kulturak, jarduera ekonomikoko sektore bat den aldetik, jasangarritasuna bere garapen profesionalaren funtsezko ardatz gisa txertatzearen alde egin behar du.

Txosten hau funtsezko bi helburutik abiatuta garatu da. Lehenik, kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioaren gaineko auzia zertan den zehaztea, kulturak ingurumen-erantzukizunaren hobekuntzan duen garrantzia eta sektoreak lehendik dauden jasangarritasun-kontakizunetatik jaso duen eragina erakusten duten azterlanak, proposamenak eta ekimenak ikertuz. Bigarrenik, gida praktiko bat egitea, kultura-sektoreko erakundeek ekintza ingurumen-eremuan garapen jasangarriko neurriak hartzera eraman dezan.

Helburu horiek lortzeko, nazioartean eta eremu estatal eta autonomikoan lehendik dauden proposamenak sakonetik berrikusi dira, eta ideia nagusiak laburbildu ekintza-gida praktiko bat egiteko, hura inplementatzeko baliagarri diren erreminten multzo bat barne.



BLOKEA 1: Eztabaida teorikoa eta auziaren egungo egoera

KULTURAREN ETA JASANGARRITASUNAREN ARTEKO BINOMIOA

Garapenari aplikatutako jasangarritasun-konzeptua XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera sortu zen, jendea kontzientzia hartzen hasi zenean munduko industria-garapenetik eratorritako ingurumen-arazoen gainean. 80ko hamarkadan, NBE eta beste erakunde batzuk problematika horretara hurbiltzen hasi ziren, eta Naturaren Mundu Gutunaren onarpena izan zen lehen mugarrria, non agerian utzi zuten kontziente zirela sistema naturalak hondatzen ari zirela baliabideen gehiegizko erabileraren ondorioz, eta haiek kontserbatzeko konpromisoa hartu beharra zegoela.

Ondoren, Nazio Batuen Ingurumenaren eta Garapenaren gaineko Mundu Batzordeak egindako → *Gure etorkizun komuna* txostenak garapen jasangarriaren kontzeptua definitu zuen, egun oraindik indarrean jarraitzen duten parametroekin.

Garapen jasangarria da "oraingo belaunaldiaren premiak gogobetetzea, etorkizuneko belaunaldien premiak gogobetetzeko gaitasuna kolokan jarri gabe", eta orekaz lortu behar diren oinarrizko hiru zutabetik abiatuta definitzen da: garapen ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumenaren babesa.

Garapen jasangarriak etorkizun barne-hartzaile, jasangarri eta erresiliente bat eraikitzeko bide ematen du, nola pertsonentzat hala ingurunearentzat, eta horregatik, nazioarte-mailan aurre egin beharreko erronka nagusietako bat da une honetan.

Behin gaur egun garapen jasangarriaz zer ulertzen dugun definitu ondoren, kultura-terminoa kontzeptualki mugatu beharrean gaude orain, bi kontzeptuen arteko erlazioa ulertu ahal izateko.


Txosten honetan, kultura jarduera multzo bat da, kontsumitu edo sor daitezkeen jarduerak eta inplikaturako eragileengan eragiten dutenak. Kultura-, arte- eta sormen-jardueretan parte-hartzearekin zerikusia du kontzeptuak, kultura-kontsumoaren zein kultura-produkzioaren ohituren ikuspuntutik.

Kulturaren eta garapenaren arteko lotura UNESCOren lehen Mondiacult konferentzian definitu zen, 1982an, garapenak kultura-dimentsio bat daukalako ideia adierazi baitzen bertan. Bi kontzeptu horien arteko lotura sortu da kultura-industriek aurrera egin dutelako eta horrenbestez kultura ikuspegi ekonomiko batetik ere aintzat hartzen delako, horrek agerian uzten duelarik garapen ekonomiko zein sozialean betetzen duen zeregina.

Kulturaren, aurrerabidearen eta garapenaren arteko lotura begi-bistakoa bada ere, jasangarritasuna garapenaren oinarritzko faktore gisa txertatu denean kultura bigarren plano batean geratu da, antza, agenda politikoetan. Egungo testuingurutik eratorritako premiak ikusirik, premiazkoa da kultura eta jasangarritasuna lotzea, jasangarritasun hirukoitzaren (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) eredu onartua zabalduz lau zutabetan oinarritutako eredu baterantz, non kulturak bere ahalmen guztia zabaltzeko aukera izango duen.

Garapenerako kulturak ahalmena du parte-hartzea aktibatzen, askatasun indibidual eta kolektiboak aitortzeko, kultura-adierazpenak sustatzeko, ondarea babesteko, sormenari oinarritzko izaera emateko, etab. Komunikazio eta kontzientziazio sozialeko foku estrategiko bat da kultura, garapen jasangarriko estrategiakin lerrokatu beharrekoa.

1. grafikoa: Ardatz kronologikoa. Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioaren bilakaera historikoa markatu duten mugarriak.



Iturria: geuk egina

KULTURA ETA JASANGARRITASUNA EGUNGO AGENDA POLITIKOAN

Nazioarteko eremua

2030 AGENDA

Badira urte batzuk jasangarritasun-kontzeptua nazioarteko eztabaida publikoaren erdian dagoela, eta kultura-sektorea aspalditik ari da kulturaren eta garapen jasangarriaren artean dagoen lotura garrantzitsua aldarrikatzen. Sektoreak hainbat ahalegin egin baditu ere kultura garapen jasangarria bultzatzeko oinarritzko zutabe modura aitortua izan dadin, 2030 Agendak eta nazioarteko beste ekimen batzuek ez zuten horrelakorik egin.

2000. urtean, eta hamar urtean nazioarteko hainbat konferentzia eta goi-bilera egin ondoren, Nazio Batuen Batzarrak → **Milurtekoaren adierazpena** onartu zuen, Milurtekoaren 8 Garapen Helburuak jasota. 2000 urtetik 2015. urtera bitarteko garapenerako agenda globala markatu zuen adierazpen horrek, eta, behin aldi hori amaiturik, aurrera egin zen helburu horiek berriro eta zabaltzeko bidean.

Hala, 2015ean, NBEren Batzar Nagusiak → **2030 Agenda** onartu zuen, eta, horrekin batera, Garapen Jasangarriko Helburuak. Harrezkero, zeharkako 17 helburu horiek ekintza- eta erreferentzia-esparru bat ezarri dute ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapen globalerako, 2015-2030 horizontean.

Nazioarteko eskalako hainbat kultura-erakundek → **"nahi dugun etorkizunak kultura hartzen du barne"** kanpaina koordinatuz eta sustatuz ahalegin handiak egin arren, 2030 Agendak garapen jasangarriko hiru dimentsio planteatu zituen: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, kultura-dimentsioa barne hartu gabe. Diseinatu ziren 169 helmuga eta 230 adierazleetatik, kultura 4 helburutan eta adierazle batean aipatu zen bakarrik, kulturak garapen jasangarriko erakutsi duen ahalmena aintzat hartu gabe.



Honako hauek dira kultura-dimentsioa barne hartzen duten 4 helmuga horiek:

- 4.7 Helmugak planteatzen du ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratuko dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako hezkuntzaren bidez, munduko herritartasuna sustatuz, eta kultura aniztasuna eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena baloratuz.
- 8.3 Helmugak planteatzen du hainbat produkzio-jarduera –nagusiki, sormena eta berrikuntza– bultzatzeko garapen-politikak sustatzeko helburua.
- 8.9 Helmugak, berriz, turismo jasangarri bat bultzatzeko politikak egitea eta martxan jartzea planteatzen du, lanpostuak sortzeko eta tokiko kultura eta produktuak sustatzeko. Helmuga horri loturik, 12.b-k xede horietara egokitutako tresnak egiteko premia planteatzen du.
- 11.4 Helmugak, berriz, munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak areagotzea planteatzen du. 11.4 helmugari loturik, UNESCOk → *Informe Mundial sobre la Cultura para el desarrollo urbano (Hiri-garapenerako Kulturaren gaineko Mundu Txostena)* egin zuen, eta kulturak hiri jasangarriak sortzeko baliabide estrategiko moduan duen ahalmena azpimarratu zuen bertan, erabaki praktikoak hartzea gidatzeko ekintza-jarraibide zehatzak emateaz gainera.

Une honetan aurrera ari gara Garapen Jasangarrirako Helburuak integratzeko, aplikatzeko eta lortzeko bidean, baina oro har, hartutako neurriek ez dute oraindik aurrera egiten behar den abiaduran eta eskalan.

Mugimendu sozialen eta aldarrikapen ekologisten gorakada nabari den testuinguru global batean, 2019ko irailean hainbat goi-bilera egin ziren Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan, eta Klima Ekintzaren gaineko Goi-bilera eta Garapen Jasangarrirako Helburuen gaineko Goi-bilera nabarmendu behar dira horien artean. *Ekintza-hamarkada* esaten zaiona hasi baino urtebete

lehenago eta Garapen Jasangarrirako Helburuen implementazioa ziurtatu beharra zegoela ikusirik, topaketa horiek baliagarri izan ziren, gizarteak 2030 Agendak markatutako ildotik eraldatzeko eta helburu lortzeko azelerazioaren aldeko neurriak nola aplikatu nahi zituzten erakusteko.

Goi-bilera horretan, munduko liderrek hitzeman zuten finantzaketa mobilizatu eta GJHak maila nazionalean aplikatzeko lanak hobetuko zituztela, 2030 horizontean aurreikusitako helmugak lortzeko konpromisoa hartuz. Ordura arte abiarazitako ekimen eta proiektuen helburua zen garapen jasangarria definitu behar zuen esparru teorikoa eta eztabaida mugatzea eta zehaztea, eta konferentzia horiek auziaren egoera eguneratzeko ekimen bat suposatu zuten, GJHak lortzeko inplementazio-gida zehatzak egiteko abiapuntua ezarri zuena.

Kultura-izaerako helburu bat 2030 Agendaren definizioan ez txertatzeak, kultura-sektorea garapen jasangarriaren aldeko apustutik urrundu beharrean, GJHak kultura-begirada batetik aztertzen dituzten hainbat ekimen agertzea ekarri du berekin. 2030 Agenda onartu baino lehen, hainbat azterlan eta ekimenek frogatu zuten kulturak garapen jasangarrirako zuen indarra, eta hura onartu ondorengo analisiek bilatzen dute, berriz, kultura GJHen aplikazioan kokatzea eta horien inplementaziorako gida praktikoak eta ekintza-gidak egitea.

2030 Agenda onartu ondoren, “nahi dugun etorkizunak kultura hartzen du barne” #culture2015goal kanpainak → #culture2030goal kanpainari eman zion bidea, kultura garapenaren laugarren zutabe gisa aitortzearen eta garapenerako agenda globaletan sartzearen alde egiten duena.

New Yorken egin zen GJHen Goi-bilerak indarberritu zuen kanpaina, eta gauzak horrela, → *La cultura en la implementación de la Agenda 2030 (Kultura 2030 Agendaren inplementazioan)* txostena argitaratu zen, 2030 Agenda inplementatu den lau urteen gaineko balantzea egiteko kultura-ikuspegi batetik, kultura GJHen inplementazioan jokatzeko ari zen zeregina



sustatzeko eta zabaltzeko helburuarekin. Análisi horren ostean, → **kulturaren eta Covid-19 pandemiaren gaineko** adierazpen bat ere argitaratu zen, non kulturak pandemia osteko errekupeziarako funtsezkoa eta ezinbestekoa dela aldarrikatzen zen, eta → **La cultura en la localización de los ODS: un análisis de los Informes Locales Voluntarios (Kultura GJHen lokalizazioan: Borondatezko Toki Txostenen inguruko analisi bat)** txostena ere bai, hainbat toki- eta erregio-gobernu 2030 Agendaren inplementazioan kultura-dimentsioa barne hartzen ari direla erakutsi zuena.

Kulturaren eta garapen jasangarriaren arteko loturak Mondiacult Konferentziatik aurrera beste aurrerapauso bat egitea espero da. UNESCOren Kultura Politiken eta Garapen Jasangarriaren gaineko mundu-konferentzia da, eta Mexikon egindako 2022ko irailaren 28tik 30era bitarte.

KULTURAREN 21 AGENDA

Garapen-jasangarriaren aldeko apustuaren esparruan, beste programa global batzuek, 21 Agendak adibidez, toki- eta erregio-ingurunera daramate jasangarritasunaren gaineko ekintza. Programa handi horren babesean, 2004ko maiatzean onartu zen → **Kulturaren 21 Agendak** oinarriak ezarri nahi ditu hiriek eta toki-gobernuek kultura garatzeko konpromisoa har dezaten. Mundu osoan giza eskubideekin, kultura-aniztasunarekin, jasangarritasunarekin, parte hartzeko demokraziarekin eta bakerako baldintzak sortzearekin konprometituta dauden toki-gobernuek kulturaren 21 Agenda onartu zuten, eta horrek hiriei eskaintzen die kulturaren ikuspegi bat sortzeko aukera, beren garapenerako funtsezko zutabe bat den heinean.

Hirien eta Tokiko Gobernuen Batasuna izeneko Mundu Erakundeak kulturaren 21 Agenda koordinatzen du, eta kulturaren eta garapen jasangarriaren arteko lotura sustatzearren alde dihardu. Zehazki, Hirien eta Tokiko Gobernuen Batasunaren lanaren helburua da “kultura garapen jasangarriaren laugarren zutabe modura sustatzea, kulturaren 21 Agenda nazioartean zabalduz eta toki-mailan inplementatuz”, eta azterlan, txosten eta topaketa ugari egin dira xede hori betetzeko.

→ **Cultura, cuarto pilar del desarrollo sostenible (Kultura, garapen jasangarriaren laugarren zutabea)** (2010) adierazpen politikoa erreferentziarako esparru baliagarria izan zen erakundearen lana bideratzeko, eta kulturaren eta jasangarritasunaren arteko loturaren gainean irekitako eztabaida teorikoaren oinarriak ezarri zituen. Ondoren, → **Cultura 21 Acciones (21 Kultura: Ekintzak)** (2015) gida praktikoa gidalerro zehatzak eman zituen, tokiko gobernuek kultura-eskubideetan oinarritutako kultura-politikak diseinatu eta aplikatzeko zer egin zezaketen erakusteko. 2030 Agendaren inplementazioan aplikazio praktikoa bilatzeko bide horretan aurrera eginez, → **La cultura en los ODS: guía práctica para la acción local (Kultura GJHetan: toki-ekintzarako gida praktikoa)** (2018) gidak eta → **Siete Claves (Zazpi gako)** (2020) programak aurrera egin zuten GJHak kultura-ikuspegi batetik nola irakur daitezkeen erakusteko bidean. Orokorragoak diren lan horiez gainera, aurrera egin da kulturaren eta garapenaren eremu zehatzen arteko lotura argitasunez definitzeko bidean, zenbait azterlanen bitartez, hala nola → **Patrimonio Cultural y Desarrollo Sostenible (Kultura-ondarea eta garapen jasangarria)** (2018) edo → **El papel de la cultura en el desarrollo resiliente al clima (Kulturaren zeregina klimarekiko garapen erresilientean)** (2021).

Eremu politikoago batean, eragin-kanpainen alde egin da → **#Culture2030goal kanpainaren 2020-30** aldirako estrategia garatuz, eta, → **Cultura y Paz (Kultura eta bakea)** (2018) adierazpenaren, → **El futuro de la Cultura (Kulturaren etorkizuna)** (2019) manifestuaren eta → **Carta de Roma (Erromako Gutunaren)** (2020) bitartez, kultura-erronkak gizateriak aurre egin beharreko beste erronka global batzuekin lotzearen alde egin da.

Argitaratu diren azken adierazpen eta manifestuetan lider globalei eskatzen zaie kulturaren eta jasangarritasunaren arteko loturaren aldeko konpromisoa har dezaten, eta kultura-eremuari lotutako aktore guztiei, berriz, plan nazionaletan eta tokiko planetan parte-hartze aktiboa har dezaten GJHak inplementatzeko, konpromiso global horrek arrakasta izan dezan, garapen jasangarriaren kultura-dimentsioak esplizitua eta operatiboa izan behar duela aintzat hartuta.



Eztabaida sustatu eta orientatzeko, Hirien eta Tokiko Gobernuen Batasunak Kulturaren Mundu Goi-bilera nazioarteko ekitaldia antolatzen du bi urtean behin, hiriak kultura eta garapen jasangarria lotuz eta ezagutzak elkartrukatzeko, ikasteko eta garapen jasangarrirako kultura-politiken gainean diharduten sareak sortu eta indartzeko foro bat izateko helburuari eutsiz. Lehen goi-bilera Bilbon egin zen 2015. urtean, eta harrezkero beste zenbait goi-bilera egin dira, Jejun (2017), Buenos Airesen (2019) eta Esmirnan (2021). Topaketa horiek erreferentzia baliagarriak dira jasangarritasunaren kultura-dimentsioaren aldeko programa eta politika publikoak benetan inplementatzeko konpromisoa hartu duten aktoreentzat.

Kulturaren 21 Agendaren balio sinbolikoaz gain, garrantzi handia du hainbat hiri eta tokiko gobernu, haren jardunei esker, kultura eta jasangarritasuna lotzen duten toki-ekintzako planak aplikatzen ari direlako.

HIRI-AGENDA BERRIA

2030 Agenda onartzearen eta GJHak lortzeko bidea erraztearen esparruan, 2016an → **Hiri Agenda Berria onartu zen**. Nazio Batuek onartutako Agenda hori erreminta egokia da 11. GJH eta gainerako GJHen lurralde- eta hiri-eremuarekin lotutako helburu guztiak lortzeko.

Babes horren esparruan, halaber, 2016an → **Europar Batasunerako Hiri Agenda** onartu zen, eta 2019an, berriz, → **Espainiako Hiri Agenda**. Hiri Agenda Berria Espainiako testuingurura moldatuz gida bat sortu da hirietan politika eta ekintza jasangarriak ezartzeko, eta lan-esparru bat, berriz, hirietan esku hartuz, beren jardun-eremuetatik garapen bidezko, justu eta iraunkor bat bilatzen duten aktoreentzat.

Nazioartean nabaria bada ere kulturak zentraltasuna duela gure hirien etorkizunarekin lotutako edozein eztabaidatan, agenda horiek ere ez zuten kultura-izaerako helburu espezifiko bakar bat ere barne hartu. Espainiako Hiri Agendaren kasuan proposatzen da, hura lortzeko, hiriek Hiri Agendaren

Ekintza Plan bat egitea, eta hirien toki-ekintzako plan horren bitartez, hain zuzen, hiriek badute maniobratzeko tarterik, kultura-ikuspegia hiri-garapen jasangarriaren sustapenean sartzeko.

GURE AGENDA KOMUNAN

Hartutako akordio eta konpromiso globalen artean → **Gure Agenda Komuna** da berrienetako bat. Nazioarteko eremuan, mundu-garapen jasangarriaren aldeko konpromisoak berritzen jarraitzen dute, baina, azken urteetan egindako aldarrikapenak eta lanak gorabehera, kulturak zeregin nabari bat eduki gabe jarraitzen du.

Gure Agenda komuna ekintza-agenda bat da, nazioarte-mailako akordioen inplementazioa azkartzeko pentsatua, eta 2021ean garatu zen, Nazio Batuen 75. urteurrenetik aurrera sortutako elkarrizketen ondorioz. Ekintza-agenda hori landu da helburu zehatz jakin batzuetan oinarrituta: multilateralismoa sustatzea, munduko eta belaunaldiarteko elkartasuna, eta GJHak lortzeko prozesua azeleratzea.

→ **Nazio Batuen 75. urteurrenaren gaineko adierazpenean** hartutako 12 konpromisoetatik abiatzen da txostena, eta zenbait proposamen egiten ditu kontratu soziala berritzeari loturik, giza eskubideak, belaunaldien arteko elkartasuna, ondasun publiko globalak hornitzeko itun global berri bat eta Nazio Batuak aro berri batera egokitzea ardatz modura hartuta.

Nabarmentzen duenez, garatutako proposamenen artean ez da kultura hartzen konpromiso eta helburu horiek lortzen lagunduko duen eremu baten modura, nahiz eta erakunde globalei behin eta berriz eskatu zaien kulturak munduko garapenerako zein giza eskubideen aitortza integralerako duen garrantzia aitor dezatela.



KULTURARAKO EUROPAKO AGENDA BERRIA

Lehen → **Kulturarako Europako Agenda** 2007an onartu zen, Europar Batasunean kultura-lankidetzaren areagotzeko helburuarekin, globalizazioak planteatutako erronkei erantzun berri bat eman nahian. Harrezkero, ekintza zehazki gidatzen duten lan-planak zehazten eta akordioak berritzen joan dira.

2018ko maiatzean, → **Batzordeak Kulturarako Europako Agenda Berri** bat hartu zuen hiru helburu estrategikorekin: kulturak kohesio sozialerako eta ongizaterako duen indarra aprobetxatzea, hezkuntzaren eta berrikuntzaren eremuetan kulturen oinarritutako sormena bultzatzea, eta enplegua eta hazkundearen sustatzea eta nazioarteko kultura-harremanak indartzea. Helburu horiei erantzuteko, kultura-alorreko lan-planak agendaren ekintza gidatzen du 2019-2022 aldian.

Europako Agenda Berriak kulturarako duen planteamenduak, kulturak garapen jasangarriaren logikak nola xurgatu dituen ematen du aditzera. Jasangarritasuna zeharka agertzen da agendan, eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriak diren garapen-ereduei lotzen zaie.

Garapen jasangarria akordio honen eremu guztietan nabari bada ere, Agendan jasotako programa eta ekimen lagungarri batzuek modu bereziki garrantzitsu batean indartzen dute kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioa, → **Europako Bauhaus Berria** ekimenak adibidez.

Europako Bauhaus Berria 2021eko urtarrilean jarri zen martxan ofizialki, eta Europako Itun Berdearekin bat etorri bizi-espazioak sortzeko helburua duen hausnarketa- eta jardun-talde baten modura aurkeztu zen. Zientzia, berrikuntza, kultura, artea eta inklusioa harremanetan jarriz, gure eguneroko bizitza birmoldatzeko gauza izango diren soluzio jasangarri berritzaileak garatuko dira.

EUROPAKO ITUN BERDEA

Europar Batasunak 2050erako klima-neutraltasunaren helburua lortzeko ezarritako estrategia da → **Europako Itun Berdea**. Aintzat hartutako ekimenen eskutik, Europako ekonomia eraldatu nahi da, ekonomia moderno, efiziente eta lehiakorra izan dadin, ingurumena errespetatuko duena.

Europako Itun Berdeak bat egiten du Europar Batasunaren programa guztiekin, horietan guztietan zeharka eraginez, baita "Europa Sortzaile" moduan kultura-eremuari lotuta daudenetan ere. Horrela leihotze bat irekitzen da, kultura-programek gure gizartearen klima-neutraltasunaren eta ingurumen-jasangarritasunaren laguntzeko duten ahalmena erakusteko lagungarri.

SUSPERTZE-PLANAK

Azken urteetako testuinguru akademikoak agerian jarri du elkarlana beharrezkoa dela Covid-19ak munduan eragindako paralizaziotik eratorritako ondorioak gainditzeko, eta aukera hori Europa ekologikoago, digitalago eta erresilienteago bat sor dadin aprobetxatzeko. Helburu horrekin, suspertze-planak estimulu-pakete bat bihurtu dira ekonomia osoarentzat, baita pandemian oso kalteak eratu zituzten kultura-sektorearentzat ere.

Kultura funtsezkoa da suspertze-planetan, oso garrantzitsua baita epe luzerako ekonomia jasangarria susper dadila lortzeko garaian. Suspertze-funtsek kultura-sektorean nola eragiten duten zehaztu dezakegu, bi alderditik begiratuta: batetik, sektoreak finantzaketa behar du pandemiatik eratorritako krisitik erreberberatzeko, eta, bestetik, ahalmen berezia ere badu ekonomia oro har eta enplegua suspertzeko bidean laguntzeko.

Ildo horretan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 24. osagaiak Kultura Industriaren birbalorizazioaz dihardu bereziki, eta hori erronka bat da sektorearentzat, finantzaketa lortzeko digitalizazioa eta jasangarritasuna txertatzen duten proiektuak aurkeztu behar dituen heinean. Finantzaketa eskuratzeko baldintza horiek kultura-industriarentzat aukera bat dakartela uler daiteke, bai Europar Batasunak markatutako jasangarritasun- eta berdintasun-eskakizunetara egokitzeke, bai sektoreak garapen jasangarria bultzatzeko duen ahalmena erakusteko.



Eremu estatala

Nazioarte-eremuan garapen jasangarriari emandako bultzadak lehentasun horiek estatu-mailako lehentasunetara eraman beharra ekarri du berekin. 2030 Agendan zehaztutako helburuak inplementatu eta lortzearen garrantzia maila estatalean ere ikus dezakegu, 2030 Agendarako Estatu Idazkaritza bat zehaztu delako Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako presidenteordetzari loturik.

Maila politikoko lehentasunaz gain, REDS Garapen Jasangarrirako Espainiako Sareak eta beste erakunde batzuek lanean dihardute 2030 Agenda betetzeko bidean aldaketa azeleratzeko helburuarekin. Erakunde horrek GJHen aurrerapenaren jarraipena egiten du, eta zabalkundeko, prestakuntzako eta inplementazioan laguntzeko eginkizunak betetzen ditu, ebaluazio- eta jarraipen-tresnak lantzeaz gainera.

REDS sareak garapen jasangarrirako kultura sustatzeko eremuan dihardu, besteak beste, eta zehazkiago, 2030 Agenda kultura-sektorean integratzeko lanetan. Ekintza-esparru horretan, jasangarritasunaren eta kultura-erakundeen gaineko jardunaldiak antolatzen dira urtero, kultura- eta sormen-sektorea jasangarritasun-paradigmaren inguruan mobilizatzeko eta kulturak balio-igorlea den heinean duen erantzukizuna ulertu ahal izateko erremintak eskaintzeko helburuarekin.

Topaketa horiez gain, txosten deskribatzaile zein praktikoak egin dira, kultura-eremuak jasangarritasunaren sustapenean duen ahalmenaren gaineko eztabaida zentratzeko lagungarri. → *Los ODS y sus metas desde una perspectiva cultural (GJHak eta haien xedeak kultura-ikuspegi batetik)* (2021) txostena erreminta baliagarria da GJHak kultura-klabean interpretatzeko, eta → *Cultura y desarrollo sostenible. Aportaciones al debate sobre la dimensión cultural de la Agenda 2030 (Kultura eta garapen jasangarria. 2030 Agendaren kultura-dimentsioaren gaineko eztabaidarako ekarpenak)* (2020) izenekoak, berriz, kulturaren eta jasangarritasunaren arteko loturari buruzko hausnarketak biltzen ditu. Txosten horiek eta beste zenbaitek esparru teoriko garrantzitsu bat ezartzen dute, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko kultura-eremua kontuan hartu beharra justifikatzen duena.

Eztabaida teorikoa zentratu eta kokatu ondoren, gida praktikoak egiteko ahaleginak egin dira, kultura eta jasangarritasuna lotzeko ekintza gidatzeko. Ildo horretan, → *Hacia una cultura sostenible. Guía práctica para integrar la agenda 2030 en el sector cultural (Kultura jasangarri baterantz. 2030 agenda kultura-sektorean integratzeko gida praktikoa)* (2021) argitalpenak eskuliburu bat izan nahi du, jasangarritasuneko irizpide eta adierazleak biltzen dituen profesionalen eskura hainbat erreminta jartzeko, kultura-sektorearen barruan ikuspegi jasangarri bat hartzeko aukera izan dezaten.

Kulturaren eta jasangarritasunaren artean dagoen lotura positiboa frogatu ondoren, une honetan Garapen Jasangarrirako Espainiako Sarea aurrerabidean ari da, 2030 Agenda kultura-sektorean lurreratzeko ahaleginetan.

2030 Agendaren inplementazioa gidatzeko asmo hori sendotu egin da, 2030 helbururaino iristeko falta ziren hamar urteek berezko izan duten ekintzaren edo inplementazioaren hamarkada iristearekin batera.

Esparru estatalean GJHen inplementazioan aurrera egitea proposatzen duten giden artean, honako hauek nabarmentzen dira: → *Guía para la elaboración de Planes municipales y comarcales para la mitigación y adaptación al cambio climático (Klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko udal- eta eskualde-planak egiteko gida)*, → *Guía para la localización de la Agenda 2030 (2030 Agenda lokalizatzeko gida)* edo → *Guía para la localización de los ODS (GJHak lokalizatzeko gida)*, eta guztiak ere tresna lagungarria izan daitezke 2030 Agenda estatu azpiko mailan eta toki-mailan inplementa dezaketen politika publikoen garapena bultzatzeko.

Eremu autonomikoa

Garapen jasangarria lehentasun politiko bat da Eusko Jaurlaritzarentzat, eta horren adierazgarri dugu Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusi bat zehaztu dela, euskal testuinguruan 2030 Agenda inplementatzeko ardura har dezan.



2030 Agenda Euskadiko errealitatera eraman da → **Euskadi Basque Country 2030 Agenda, euskal ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari** argitalpenaren bitartez, Gobernu Programak eta sektore-politikek Garapen Jasangarrirako 17 Helburuekin zenbateraino lerrokatzen diren eta zenbaterainoko ekarpena egiten duten islatzen duena.

Gobernu Programaren egokitzapen horretan eta kultura-eremuaren barruan ohartzen gara 34 ekimen eta 196 jardun abian daudela, 17 GJHetako 5i loturik. Kultura-eremutik GJHei erantzun nahi dieten ekimen eta jardunak 4. helburuari (kalitateko hezkuntza) eta 9. helburuari (industria, berrikuntza eta azpiegitura) lotzen zaizkie bereziki.


Garapen jasangarriaren alde lan egiteko helburuarekin Udalsarea 2030 ezarri da, udal jasangarrien euskal sarea. Sare hori sortu da tokiko jasangarritasuna sustatzeko, Euskadiko administrazio publikoaren maila guztien arteko koordinazioa sustatzeko eta sarea osatzen duten toki-erakundeen jasangarritasuneko politikak eta ekintza-planak dinamizatzeko.

Udalsarea 2030 erakundeak sustatutako argitalpen ugarietatik honako hauek nabarmentzen dira: → **Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik: Gida praktikoa**, GJHak eta haien helmugak udalerrri bakoitzeko testuingurura egokituz Tokiko 2030 Agenda bat egiteko jarraibideak emateko helburuarekin egindakoa, eta → **Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei**, 2015etik 2019ra bitarte euskal udalerriek GJHen garapenari egindako ekarpenak aztertzen dituena. Argitalpenez gain, zenbait jardunaldi ere lagungarri izan dira egindako aurrerapenak zentratzeko eta partekatzeko, *GJHen aurrerapena Euskadiko udalerrietan* jardunaldia adibidez.

Jasangarritasuneranzko eta klima-neutraltasuneranzko aurrerapena ez da soilik Garapen Jasangarrirako Helburuak euskal testuingurura eramanez zehaztu, zenbait plan ere eremu autonomikora eraman dira, Europako Itun Berdea adibidez. Basque Green Deal ibilbide-orri bat da, baliabideen erabileran ekonomia moderno, lehiakor eta efiziente bat sustatzeko estrategia markatzen duena, eta kulturaren eta sormenaren eremuak ezin daitezke atzean utzi. Basque Green Deal ibilbide-orrian kultura-eremua

ekonomia modernizatzeko bidetzat jotzen ez bada ere, kultura- eta sormen-eremuak ekonomia alderdi jasangarri batetik modernizatzeko proposamen berritzaileak egiteko eskaintzen duen zeharkakotasunak ukatu ezinezko balioa eta ahalmena dauka.

2. grafikoa. Ardatz kronologikoa. Kultura eta jasangarritasuna lotzen duten proiektuen bilakaera. 2000-2022



Iturria: geuk egina



EDUKIAREN LABURPENA

Lehen eduki-bloke honek, garapen jasangarriaren eta kulturak eztabaida horretan betetzen duen zereginaren auzia une honetan zertan den ikertzen du, eta nazioarteko, estatuko, erregioiko eta tokiko jardunbidea gidatuko duten jasangarritasun-irizpideak zehazteko lanetan azken urteetan egindako aurrerabidea aztertzen.

Jasangarritasun-kontzeptua nazioarteko agenda publikora iritsi denean, lehen adierazpen, txosten eta gidek kontzeptua teorikoki garatu dute, eta mundu-mailan garapen jasangarri baten alde egitearen garrantzia justifikatu. Alabaina, lehenengo lanak gertuago daude asmo onen adierazpenetatik benetako inplementaziorako jarraibideetatik baino.

Lehen une batean, asmo onen katalogo hori, konpromisoei lotutako helburu espezifikotan zehaztu da. Aldez aurretik adierazi dugunez, 2030 Agendaren onarpenak Garapen Jasangarrirako 17 Helburuen definizioa ekarri du berekin, jasangarritasunaren onura teorikoen eta mugarri zehatzak markatu behar diren arteko zehaztasun-ariketa bat eginez eta nazioartean hartutako konpromisoa agerian jarri.

Bigarren une batean, larrialdi-egoerak orientabide orokorrak helburu espezifikokoagoetara eramatea dakar, desparekotasun handiek beren horretan jarraitzeak, klima-larrialdiak, baliabide naturalak agortzeak eta beste faktore batzuek argi eta garbi uzten dutelako egungo garapenaren norakoa aldatzeko kontzienteki lan egin beharra.

Testuinguru horren aurrean, garapen jasangarriaren kontzeptua jarduera ekonomikoko sektore ugarritan integratzen da pixkanaka, kultura-sektorean, besteak beste. Lehen eduki-bloke honetan azaldutako txostenek eta lanek ohartarazten dutenez, kulturak erakutsi du garapen jasangarriaren alde egiteko ahalmena duela, baina hala eta guztiz ere, kultura-alderdia garapen jasangarriaren definizioan ofizialki integratzea ez dela lortu ikusten da.

Gure gizartearen garapena oinarritzko lau zutabetatik azal daiteke, horrenbestez, jasangarritasunean ere eragiten dutenak: aberastasuna sortzearekin lotutako zutabe ekonomikoa, birbanaketan oinarritutako zutabe

soziala, ingurumen-erantzukizunaz arduratzen den ingurumen-zutabea, eta garapen pertsonal eta kolektiboan eragina duen kultura-zutabea. Lau zutabe horiek elkarren mendeak badira ere, garapen jasangarriaren ekintza-oinarriak definitu zirenean zutabe ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren alde baino ez zen egin.

Larrialdi globalaren testuinguruak azkartu ditu garapenaren gaineko eztabaidaren aurrerapenak, ekintza efektiboak lehenbailehen abian jarri beharra agerian jarri. Premia-egoera horrek eztabaida teorikoa aldatu beharra dakar, proposamen zehatz, praktikoa eta operatiboei bidea eman behar diena, enpresa, erakunde eta partikularrek jasangarritasun-irizpideak aplikatzeko aukera izan dezaten.

Kultura-sektoretik lan egin da kultura garapen jasangarriaren aurrerabiderako funtsezkoa delako premisa frogatuz, eta, horren ondorioz, sektorea jardunbide jasangarrietarantz gidatzearen alde egiten duten ekimen ugari sortzen ari dira une honetan. Helburu horrekin, ekintza-gida praktikoa bat aurkezten dugu jarraian, baita erreminta espezifikoen bilduma bat ere, jasangarritasun-irizpideak kultura-eremuan inplementatzeko lagungarriak.



BLOKEA 2: Inplementaziorantz.

Jasangarritasuna kultura-sektorean

JASANGARRITASUNAREN GAINEKO EZTABAIDAREN BILAKAERA

Aurreko atalean zehatz-mehatz azaldu dugunez, jasangarritasunaren kontzeptua ezagun bihurtu da pixkanaka, behar-beharrezkoa zelako giza ekintza errespetuzko garapen batera egokitzea, etorkizuneko belaunaldien gaitasunak kolokan jarri gabe. 2030 Agenda onartu ondoren, garapen jasangarriaren kontzeptua zehaztu zen hiru zutabetan oinarrituta, ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, kultura-alderdia alde batera utzita.

Kultura-sektorearen lehen ahaleginak bideratu ziren kultura eta jasangarritasuna lotzeak teoriarik zeukan garrantzia justifikatzera, baina, eztabaida horretan urtetan aurrera egin ondoren eta kultura, argi eta garbi, gizartearen garapen jasangarriaren funtsezko eremu bat dela frogatu ondoren, azkenaldian sektorearen ahaleginak ekintza orientatzeko gidak egiteko premia jarri dute jomugan, horrela kultura-jarduera eta garapen jasangarria modu praktikoa batean lotuz.

Hala, kultura eta jasangarritasuna lotzen dituen eztabaida justifikaziotik inplementaziora bilakatu dela nabari da. Kultura-alorreko zenbait instituzioek, erakundeek eta eragileek gidak garatu dituzte jasangarritasuna kulturaren eremura aplikatzeko modua zehazteko. Egindako gidetatik bi tipologia handi nabarmentzen dira.

- Lehenik, **ekintza-gida eta ekintza-plan orokorrak** garatu dira, erakunde publikoen aldetik bereziki. Gida horiek gomendio orokorrak biltzen dituzte, jasangarritasuna kultura-sektorean oro har sartzeko.
- Bigarrenik, **ekintza-gida eta ekintza-plan zehatzak** garatu dira, kultura-azpisektore espezifikoaren ekintza gidatzen dutenak, gomendioak egokituz egiten duten jardueraren berezko ezaugarri eta premietara.

Gida orokorrago eta transbertsalagoen artean, honako hauek nabarmentzen dira: → *Euskal erakundeentzako gida praktikoa. Nola ezarri 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuei lagundu*, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agenda Gunea taldeak bultzatua Euskadiko edozein sektoretako edozein erakunderi begira; → *Ingurumenaren aldetik jasangarriak diren ekitaldiak antolatzeako eskuliburua*, Iñobek sustatua eta edonolako ekitaldiaren jasangarritasuna ziurtatzea ahalbidetzen duena, edo → *Cultura, medio ambiente y emergencia climática. Cómo actuar en el ámbito de la gestión y las políticas culturales locales (Kultura, ingurumena eta klima-larrialdia. Nola jardun tokiko politiken eta kudeaketaren eremuan)*, Bartzelonako Udalak egina tokiko gobernuei baterako ikuspegi bat eta kulturaren eta jasangarritasunaren alde egiten duen esparru praktikoa bat eskaintzeko helburuarekin.



Gida zehatzago eta sektorialagoen artean, musika-jaialdien eta ikus-entzunezko produkzioen esparruan egindako lana nabarmentzen da. Eredu horretan, → *Festivales de música y Agenda 2030. Un Plan de Acción para la adaptación de los festivales de música a los Objetivos de Desarrollo Sostenible (Musika-jaialdiak eta 2030 Agenda. Musika-jaialdiak Garapen Jasangarrirako Helburuetara egokitzeko ekintza-plan bat)* txostena egin zen, musika-jaialdiek zehaztutako 17 GJHetatik 10 lortzeko bidean egin dezaketen ekarpenari heltzen diona, eta Green Screen Europako proiektuaren Jardunbide Egokien Gida, euskal testuingurura Basque Green Film idazkaritzaren bitartez ekarri dena; azken horrek → *Oinarritzko gida: ikus-entzunezko produkzioetarako jasangarritasun-plana* izeneko gida egiteko ardura hartu du, produkzio zinematografikoen kudeaketa jasangarria sustatzeko erreminta baliagarria dena.

Ikus-entzunezko eremuan, Espainiako beste autonomia-erkidego batzuk ere lanean hasi dira garapen jasangarria sustatzeko jarraibideak definitzeko lanean. Málaga → *Guía de rodajes sostenibles (Filmaketa jasangarrien gida)* eta → *10 mandamientos para rodajes sostenibles (Filmaketa jasangarrietarako 10 aginduak)*; Tenerife Film Comission-ek → *Decálogo de buenas prácticas para las producciones audiovisuales sostenibles (Ikus-entzunezko produkzio jasangarrietarako jardunbide egokien dekalogoa)* aurkeztu zuen; Asturias Film Comission-ek → *Decálogo Rueda en Verde (Filmatu Berdea Dekalogoa)* onartu zuen, eta Gasteizko Udalak, Donostia Film Commission-ek eta beste toki-erakunde batzuek zinema jasangarria sustatzeko ekimenak jarri dituzte martxan.

Aplikazio praktikoa duten gida eta dokumentuak ugaritu dira, eta horrek agerian uzten du eztabaida hausnarketa teorikotik inplementaziora eraldatu dela. Jasangarritasun-irizpideak kultura-jardueretan nola aplikatu zehazteko ahalegin ugari egiten badira ere, kultura-sektorearen aniztasunak eta jasangarritasun-kontzeptuaren zabaltasunak zaildu egiten dute behar adinako zehaztasunari eta aldi berean abstrakzioari eusten dioten gidak izatea, aplikazio praktikoa bat edukitzeko eta kultura-sektore osoarentzat baliagarri izateko moduan.

JASANGARRITASUNA INPLEMENTATZEKO IKUSPEGIAK

Aldez aurretik aipatu dugunez, kultura eta jasangarritasuna alderdi bikoitz batetik lotzen dira, berez garapen jasangarria sustatzen duen eremu moduan, eta jasangarritasun-soluzio zehatzen aplikazioa gidatzeko eremu moduan. Alderdi bikoitz horrek harreman horren inplementazioa definitzeko bi ikuspegi desberdin dakartza: ikuspegi orokor bat eta ikuspegi zehatz bat.

Inplementazioaren ikuspegi orokorrak, kulturak garapen jasangarrian laguntzeko duen ahalmena aztertzen du. Ikuspegi hori orokorra izan daiteke bi ikuspuntu desberdinetatik. Lehenik eta behin, estatuko eta nazioarteko erakundeek eta aktore espezializatuek mugatutako kontzeptuzko esparrua definitzen duen ikuspegia delako, esparru horretan kulturak garapen jasangarriari egiten dizkion ekarpenak makro moduan definitzen direlarik, eta, bigarrenik, gidak egiteko eta lan-ildo zabalak onartzeko baliatzen den ikuspegia delako, lan-ildo horietan oso gomendio orokorrak biltzen direlarik, askotan inplementatzeko zaila den jasangarritasun-kontzeptu oro-hartzaile bati loturik.

Ikuspegi horrek gidatzen du nazioarteko erakundeek eta aktore espezializatuek aurrera daramaten eztabaida, non kulturak garapen jasangarriari egin beharreko ekarpenak mugatzen dituen kontzeptuzko esparrua eztabaidatzen den, eta funtsezkoa da eztabaida publikoa kokatzeko eta kulturaren eta jasangarritasunaren arteko aurrerabidean arauak emateko. Eztabaida teorikoki zehazteko funtsezko ikuspegi bat da, baina ikuspegi hori aplikatzea zaila da, aldi berean, beren egunerokoan jasangarritasun-soluzioak ezarri garapen justuago baten alde egin nahi duten kultura-erakundeentzat.

Inplementazioaren ikuspegi zehatzak, kultura-eremuan jasangarritasun-soluzio espezifikoak aplikatzeko ahalmenean eragiten du. Kultura-eremuko erakunde eta eragileentzat aplikatzeko moduko gomendioen gida bat egiteko helburuan oinarrituta, txosten honek inplementazio-ikuspegi zehatz bat hartzen du, jasangarritasun-kontzeptua mugatuz eta neurriak inplementatzen hasi nahi duten erakundeentzako gomendioak landuz.



Kultura-arloko enpresa, eragile eta erakundeak jomugan dauzkan ikuspegi zehatzago horren barruan, jasangarritasuna kultura-eremuan aplikatzeko modua birplanteatu beharra atzeman da, gidak eginez, batetik, sormen- eta kultura-industriei lotutako askotariko erakunde eta eragileentzat baliagarri izan daitezzen, eta, bestetik, jasangarritasun-kontzeptua aplikagarri egin dezaten.

Une honetan egiten ari diren ekintza-gidei dagokienez, bi ahulezia nabarmentzen dira. Lehenik, ekintza-plan eta ekintza-gida orokorrek aplikazio nahasia duten gomendioak ezartzen dituzte sarri, eta, bigarren, gomendioak operatibo egiteraino zehazten dituztenek ere kultura-eremuko oso sektore zehatzetan jartzen dute arreta. Hala, kultura-sektorean jasangarritasun-irizpideen aplikazio praktikoari heldu beharra sortu da, ekintza-gida bat eta adierazle zehatz eta aplikagarriak diseinatuz mota guztietako kultura-proiektuei heltzeko lagungarri.

Kultura-eremuan, jasangarritasun-soluzioak hainbat ikuspegitatik aplikatzeko aukera badago, baina mugatu nahi horrek jasangarritasun-kontzeptua zehaztu beharra dakar berekin, operatibo egiteko.

Garapen jasangarriaren kultura-alderdia 5 ikuspegi desberdinen erlazioaren bitartez konfiguratzeko da (soziala, ekonomikoa, lurraldekoa, ingurumenekoa eta ondarekoa), eta horietatik abiatuta, kultura jasangarritasuna hobetzeko lagungarri izan daiteke ekintza-eremu moduan.

1. taula: jasangarritasun-kontzeptuari lotutako ikuspegiak.

Ikuspegi soziala	Ikuspegi sozial batetik, kulturak, ondasun publikoa den heinean, herritarrentzako onura argiak sortzen ditu, eta gizarte inklusiboagoak, kohesionatuek eta askotarikoagoak sendotzen laguntzen du.
Ikuspegi ekonomikoa	Ikuspegi ekonomiko batetik, ekonomia jasangarri baten alde egin behar da, Kultura eta Sormen Industrien, enpleguaren eta kultura-kontsumoaren jasangarritasuna bultzatuz; hori da jarraitu beharreko eredu ekonomikoa.
Lurralde-ikuspegia	Lurralde-ikuspegia Lurralde-ikuspegi batetik, kultura-proiektuek —zentralitate berriak sortuz, sormen-soluzioen alde eginez eta ingurunea errespetatzen duten balioen integrazioa hobetuz— hiri-eraldaketa indartzeko duten eragina hartu behar da kontuan.
Ingurumen-ikuspegia	Ingurumen-ikuspegi batetik, kultura-jarduerak aukera ematen du ingurumen-jasangarritasunaren alde egiten duten ekimenak bultzatzeko, ekitaldi handien garapena eta sektorearekin lotutako aisia-eremuak birplanteatuz, kultura-industriei lotutako industria-prozesuak berdiseinatuz edo kultura-ekipamenduen jarduera ingurumenaren hobekuntza eta babesera egokitzeko ekintzak inplementatuz.
Ondare-ikuspegia	Ondare-ikuspegi batetik, garapen jasangarriak ondare material eta immateriala babestu beharra hartzen du aintzat, eremu hori eta kultura-ikuspegia bereizezinak izanik.

Iturria: geuk egina



Jasangarritasuna kontzeptu globala eta oro-hartzailea da, eta horrek esan nahi du hartan ia edozein jardunetatik eragiteko aukera badagoela. Kontzeptuaren osotasun horrek alderdi positiboak eta negatiboak dauzka. Jasangarritasuna ekintza-eremu globala eta oso orokorra da, giza jarduera mota guztiei eragiten dielako, baina orokortasun hori oztopo da, aldi berean, haren hobekuntzaren alde egiteko neurri zehatzak eta eraginkorrak hartzeko zereginen.

Jasangarritasunean eragina duten ikuspegi guztiak funtsezkoak diren arren, zehaztu nahiak berekin dakar gida honetan jasotako gomendio eta ekintzen arreta nagusia jasangarritasunaren ingurumen-ikuspegian jartzea, egungo klima-krisiaren aurrean urgentziaz jardun behararen aurrean erantzutearren.

Ingurumen-jasangarritasunaren eremuan, ingurumena hobetzeko funtsezkotzat jotzen diren hiru ardatzen gainean jarduten da.

<p>Gasak eta emisioak</p>	<p>Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea mundu mailako erronka nagusietako bat da, eta nazioarteko komunitateak bat egin zuen harekin Pariseko Akordioaren bitartez. Klima-aldaketaren aurkako borroka premia bat da, eta kultura-sektoretik ekarpenak egin daitezke ildo horretan, emisio gehien sorrarazten dituzten sektore ekonomikoetako bat ez den arren.</p>
<p>Hondakinak sortzea</p>	<p>Hondakinak sorkuntzak inpaktu argiak dauzka ingurumenean, hala nola espazio-okupazioa, paisaiaren suntsiketa, faunaren eta floraren aldaketa eta lurraren, uraren eta airearen kutsadura, besteak beste. Hondakinak murriztea eta behar bezala tratatzea da ingurumena hobetzearen alde gehien egin dezaketen eremuetako bat, eta kultura-eremutik ere eman dakioke erantzuna.</p>
<p>Baliabideen kontsumoa</p>	<p>Baliabide naturalen kontsumo arduratsua eta murriztua eta banaketa eta tratamendu bidezkoa ere ezinbestekoak dira ingurumen-jasangarritasunaren alde egiteko. Baliabide naturalak urriak dira eta neurrigabe erabiltzeak oso ondorio garrantzitsuak dauzka produkzio-jarduerarako eta ingurumenerako. Kontsumo murriztu eta kontziente bat ez ezik, ondorengo tratamendu-prozesua ere hartu behar da kontuan, beharrezkoa izanez gero.</p>

Lehenago azaldutako irizpideetan oinarrituta, jardun-eremua zabalduko duen ekintza-gida bat egitea proposatzen da, kultura-alorreko erakunde eta eragile guztiek hura erabiltzeko aukera izan dezaten baina jasangarritasun-kontzeptua bere ingurumen-kontzeptualizaziora mugatuz, proposatutako ekintzen bideragarritasuna erraztearren.

EKINTZA-GIDA PRAKTIKOA

Txosten honen azken xedea da ekintza-gida baliagarri bat izatea sektorean beren jarduera ingurumen-jasangarritasuneko irizpideetara egokitu nahi duten erakundeentzat. Xede horretarako, ekiteko gida bat aurkezten da atal honetan, aplikazio-eremu zehatzetarako gomendio orokorrak proposatzen eta erreminta baliagarrien bilduma bat eskaintzen duena, erakundeak ingurumen-jasangarritasunera egokitzeke.

Gida praktikoa horretara hurbiltzeko bi ikuspegi hartu behar dira aintzat, kultura-sektorearen analisiari loturik. Lehen ikuspegiak sormen- eta kultura-eremuaren sailkapen **sektorial** bat dakar, erakundeak egiten duten jarduera motaren arabera ordenatuta. Bigarren ikuspegia, berriz, sormen- eta kultura-eremura hurbiltzen da **balio-katearen** analisi bat eginez, sektorearekin eta kultura-jarduerarekin lotutako eragile guztiak kontuan hartuz (sorkuntza, produkzioa, banaketa eta merkaturatzea).

Gida honetan ikuspegi sektorial bat hautatu da, sormen- eta kultura-eremuari lotutako erakunde eta aktore guztiak kontuan hartzea ahalbidetzen duen sailkapen bat egiteko, sailkapen-irizpide orokorretan oinarrituta. Sektore-ikuspegi bat hartu izanagatik, kontuan hartu beharra dago kultura-sektorearen balio-kateari lotutako eragile guztiak gai direla ingurumenean inpaktu positiboa sortzearen alde egiteko.



Gida praktikoa hau kultura-sektorearen barruko aniztasun handira egokitzeko, sormen- eta kultura-industriarekin lotuta egon daitezkeen jarduerak eta erakundeak sailkatzen dira sailkatze-irizpideetan eta elkartzeardatz zehatzetan oinarrituta. Ondoren, gomendioak sailkatzen dira planteatutako elkartzeko bakoitzari egokitzeko moduko jardun-eremuen arabera.



Kultura-erakundeak elkartzen dituzten ardatzen zein ingurumen-jasangarritasunaren alorreko jardun-eremuen azken sailkapena 2. taulan ikus daiteke.

2. taula: Ingurumen-jasangarritasunaren alorreko jardun-eremuen eta kultura-erakundeen sailkapena

Erakunde eta jardueren sailkapena		Gomendioen sailkapena ingurumen-eragineko eremuen arabera		
Saikapen-irizpideak	Elkartzeardatzak	Orokorrak	Jardun-eremuak	Gomendioak
Denbora	Jarduerak iragankorrak		Mugikortasuna	Mugikortasunaren eremurako gomendio zehatzak
			Lehengaien erabilera	Lehengaien kontsumoaren eremurako gomendio zehatzak

Erakunde eta jardueren sailkapena		Gomendioen sailkapena ingurumen-eragineko eremuen arabera		
Saikapen-irizpideak	Elkartzeardatzak	Orokorrak	Jardun-eremuak	Gomendioak
Denbora	Jarduerak egonkorrak		Energia	Energiaren eremurako gomendio zehatzak
Espazioa	Instalazio eta ekipamenduak		Hondakinak	Hondakinen eremurako gomendio zehatzak
	Ingurunea		Ura	Ura eremurako gomendio zehatzak
Publikoa	Jarduerak masiboak Formatu txikiko jarduerak	Erosketak eta kontsumoa	Erosketen eremurako gomendio zehatzak	
Jarduerak profila	Zuzeneko jarduerak			
	Industria-jarduerak			

Iturria: geuk egina

Kultura-erakunde eta -jardueren sailkapena

Saikapen-irizpideen eta elkartzeardatzen arabera banaketak aukera ematen du gomendioen gida sormen- eta kultura-industrien sektoreari lotutako erakunde guztientzat baliagarri egiteko, garatzen duten jardueraren espezifikotasuna edozein izanik ere.

Garrantzitsua da erakundeek egiten dituzten jarduerak motaren eta ezaugarrien arabera segmentatzea, sektore osoari zeharka lagunduko dioten



ekintza eta gomendioak proposatu ahal izateko. 4 sailkapen-irizpidetatik abiatuta, 8 ardatz elkartzen dira guztira, sormen- eta kultura-industriei lotutako hainbat jardun-eremu aintzat hartzen dituztenak.

Denbora-irizpideak, erakundeak garatutako iraupenarekin eta egonkortasunarekin du zerikusia.

- **Jarduera iragankorrak.** Unean-unean, denboran jarraipen egonkorrik izan gabe garatzen diren kultura-jarduerak biltzen dira ardatz honetan. Denbora-irizpidea partekatzen duten hainbat eremutako jarduerak biltzen dira ardatz honetan, formatu handikoak edo txikikoak. Jarduera galkorrak izateak hainbat ezaugarri komun ematen dizkie, ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak aplikatzeko garaian kontuan hartu beharrekoak.
- **Jarduera egonkorak.** Jarduera egonkor edo iraunkorrek ezaugarri desberdinak dituzte, oso denbora mugatukoak direnen aldean. Denboran irauteak egokitze- eta planifikatze-maila bat dakar berekin, eta horrek ezaugarri komunak ematen dizkie jarduera horiei guztiei.

Espazio-irizpidearen arabera, jarduerak sailkatzen dira egiten diren lekuaren arabera.

- **Instalazioak eta ekipamenduak.** Ardatz honek ekipamendu eta instalazioetan egiten diren kultura-jarduerekin du zerikusia, iraunkorrak eta jarduera, langile eta baliabide propioekin izan edo aldi baterakoak izan. Kultura-jarduera erabilera jakin baterako pentsatutako eta diseinatutako ekipamendu eta instalazioetan garatzeak bereizgarri zehatz batzuk dauzka, ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak hartzean kontuan hartu beharrekoak.
- **Ingurunea.** Kultura-jarduera ez da soilik ekipamendu eta instalazio itxietan garatzen, sarritan ingurunearekin ere interaktuatzen du. Espazio publikoak, hirien arkitekturak, ondare naturalak eta abarrek ezaugarri jakin batzuk ematen dizkiote ingurune irekian garatutako kultura-jarduerari, eta kontserbazio, errespetu- eta jasangarritasun-premiarekin lotzen dira zuzenean.

Publikoen irizpideak jarduera gidatzen du aurreikusitako publikoaren arabera.

- **Jarduera masiboak.** Bertaratze masiboko jarduerak gatazkatsuak izaten dira normalean, jasangarritasunaren ikuspuntutik. Ezaugarri komun batzuk dauzkatenez, bidezkoa da elkartze-ardatz zehatz baten modura hartzea.
- **Formatu txikiko jarduerak.** Jende gutxiago metatzea ahalbidetzen duten jarduerak jasangarriagoak dirudite formatu handikoek baino, hasiera batean behintzat. Hala eta guztiz ere, ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak aplika daitezke eta aplikatu behar dira, haien planifikazioa eta inplementazioa egokitzeko.

Jarduera-profilaren irizpideari jarraikiz, erakundeak sailkatzen dira egiten duten jarduera motaren arabera.

- **Zuzenekoak.** Zuzeneko jarduerak antolamendu- eta produkzio-betekizun jakin batzuk dauzkate, kultura-sektorean egiten diren beste jarduera tipologia batzuek bestelakoak. Bereizgarritasun horiek direla-eta, egokia da horrelako jardueretarako ingurumen-jasangarritasuneko irizpide espezifikoak aintzat hartzea.
- **Industria.** Kultura-sektorearen zati oso bat industria-jarduera da, argitalpen-sektorea edo moda adibidez, jarduera kutsatzaile bat garatzen duena bere produkzio- edo banaketa-prozesuan. Sektorere horren bereizgarriak aintzat hartuta, produkzio-zikloaren hasieratik pentsatutako eta diseinatutako soluzioak behar dira, eta beraz, hobekuntza jasangarriko irizpide espezifikoak.

Sailkapen-irizpide horiek aukera ematen dute sormen- eta kultura-industriari lotutako jarduera eta erakunde guztiak ezaugarri komunaren arabera elkartzeko.



Gomendioak ingurumen-eraginaren eremuen arabera sailkatzea

Sormen- eta kultura-sektoreari lotutako zenbait erakunde eta eragile biltzen dituen sailkapen bat definitu ondoren, ingurumen-eragineko hainbat eremu antolatzen dira, eta horien gainean jardun daiteke erakundeen jasangarritasuna hobetzeko.

Ingurumen-eragineko eremu horiek zerikusi zuzena dute txosten honen 5. ardatzean aintzat hartutako ingurumen-jarduneko hiru ardatz handiekin: gas eta emisioen murrizketa, sortutako hondakinen murrizketa eta baliabide naturalen kontsumoaren murrizketa.



- **Mugikortasuna.** Joan-etorriak dira emisio kutsatzaileak sorrarazten dituzten jardueretako bat. Bere jarduera nagusia ez bada ere, kultura-sektoreak mugikortasuna behar du, langileen zein erabiltzaile, hornitzaile edo banatzaileen artean. Horregatik, jardun-eremu horretan jasangarritasuna sustatuko duten neurriak jarri behar dira abian.
- **Lehengaiak** Lehengaien erabilera funtsezkoa da kultura-industriari lotutako produkzio-prozesuetarako, baina baliabideak mugatuak eta erauzketa-prozesuak kutsatzaileak izaki, material horien erabilera arduratsuan jarri behar da arreta.

- **Hondakinak.** Hondakinak sortzea giza jardueraren berezkoa da dagoeneko, baina eremu horren gainean kontzienteki eta arau batzuei jarraikiz jardun behar da, epe luzera eta laburrera begira aldaketak lortzeko.
- **Energia.** Energiaren erabilera funtsezkoa da kultura-sektoreari lotutako jarduera garatzeko, baina eremu horren gainean zehazki jarduteko aukera dago, energia aurrezteko zein energia-iturri berdeak hautatzeko gaietan.
- **Ura.** Ur-kontsumoa ere ezinbestekoa da, baina arduratsua behar du aldi berean. Ura baliabide urria da, baina funtsezkoa aldi berean, eta kontsumoa eta ur zikinen eta produkzio-prozesurako erabilien tratamendua eta kudeaketa zaindu behar dira.
- **Erosketak eta kontsumoa.** Jardun-eremu hau baliabide zein emisioen murrizketari lotzen zaio. Erosketa- eta kontsumo-prozesuan kontzienteki hautatzeak tokiko produktu zehatzen alde egitea dakar, ingurumena eta produkzio jasangarria errespetatzeko moduan.

Erakunde tipologia desberdinek intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin erabiltzen dituzte ingurumen-eragineko sei eremu horiei lotutako baliabideak. 3. taulak aukera ematen du baliabide horien erabilera potentziala ikusteko.

3. taula: baliabideen erabilera kultura-industrien elkartze-ardatzen arabera

	Mugikortasuna	Lehengaien erabilera	Energia-erabilera	Hondakinak sortzea	Ur-erabilera	Erosketak eta kontsumoa
Jarduera iragankorrak	■	■	■	■	■	■
Jarduera egonkorak	■	■	■	■	■	■
Instalazio eta ekipamenduak	■	■	■	■	■	■

■ Intentsitate handiagoko erabilera ■ Intentsitate txikiagoko erabilera



	Mugikortasuna	Lehengaien erabilera	Energia-erabilera	Hondakinak sortzea	Ur-erabilera	Erosketak eta kontsumoa
Ingurunea	■	■	■	■	■	■
Jarduera masiboak	■	■	■	■	■	■
Formatu txikiko jarduerak	■	■	■	■	■	■
Zuzeneko jarduerak	■	■	■	■	■	■
Industria-jarduera	■	■	■	■	■	■

■ Intentsitate handiagoko erabilera ■ Intentsitate txikiagoko erabilera

Ekintza-gida

Zehaztutako ingurumen-eragineko eremu bakoitzean aplikatzeko gomendio eta proposamenetatik abiatuta egindako ekintza-gida bat zehaztuko dugu jarraian. Erakunde edo eragile bakoitzak, jarduera motaren arabera, ekintza-gida hau egokituko du aplikazio-eremu bakoitzari garrantzi handiagoa edo txikiagoa emanez, bere sektorearen eta garatzen duten jardueraren arabera (3. Taulan idatzi dira).

4. taula: Ekintza-gida praktikoa Ingurumen-jasangarritasuneko gomendioak aplikazio-eremuaren arabera

Aplikazio-eremua	Gomendio orokorrak
Mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> Langile eta erabiltzaileen artean mugikortasun jasangarritasuna bultzatzea, garraio publiko edo kolektiboaren erabilera sustatuz. Aldi baterako instalazioen kasuan, garraio publikoarekiko konektibitatea lokalizazioa hautatzeko irizpidetzat hartzea.

Aplikazio-eremua	Gomendio orokorrak
Mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> Zabalkunde-ekintzetan garraio-aukera jasangarriak komunikatzea Ekipamendu eta instalazio finkoetan bizikletak aparkatzeko guneak ezartzea Ibilgailu elektrikoetan inbertitzea, banaketa- eta garraio-prozesuen beharra badago
Lehengaiak	<ul style="list-style-type: none"> Lehengaien erabilera murriztea Ahal den neurrian, birziklatutakok edo berrerabilitako materialak erabiltzea Produktzio-prozesuak egokitzea, eraginkortasunez kontsumitzeko Beste material batzuen erabilera ikertzearen alde egitea Ahal den neurrian, material ez-kutsatzaile mugagabeak erabiltzea.
Energia	<ul style="list-style-type: none"> Energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea Ekipamendu eta instalazioetan energia-iturri berriztagarriak instalatzea Ahal den neurrian, unitate elektrogenoen erabilera saihestea Argiztapen-sistema efizienteen erabilera sustatzea Argi naturalaren erabilera maximizatzeko espazioa antolatzea Erabiltzaileei energia aurreztu beharra jakinaraztea eta horretaz kontzientziatzea, ohar eta seinaleztapen egokiak erabiliz Beharrezkoak diren argi-sektoreak soilik konektatzea Temperatura kontrolatzea eta estandar efizienteetara egokitzea Presentzia-detektagailuak instalatzea jendearen mugimendua etengabea ez den tokietan, komunetan adibidez Karbono-aztarna hasteko programak txertatzea
Hondakinak	<ul style="list-style-type: none"> Hondakinak murrizteko politika bat ezartzea, ekitaldi eta jardueren aurrekoa, bitartekoa eta ondorengoa aintzat hartzen dituen estrategia batekin.



Aplikazio-eremua	Gomendio orokorrak
Hondakinak	<ul style="list-style-type: none"> – Birziklatze-plan zehatz bat ezartzea – Materialen murrizketa eta berrerabilera sustatzea – Erabilera bakarreko plastikoak eta erabili eta botatzeko produktuak saihestea – Hondakinen bilketa selektiboko sistema bat edukitzea – Bilketaguneetan seinale egokiak jartzea, gizalegezkoak ez diren jokabideen erabilera murrizteko – Berrerabilgarriak diren aldi baterako azpiegituren erabilera lehenestea eta dekorazio eta materialak berrerabiltzea – Dekoratuak, materialak, aldagelak eta abarren alokairua sustatzea – Hondakinen murrizketaren, birziklatzearen eta berrerabilera inguruan komunikatu eta sentsibilizatzeko ekintza eta kanpainak egitea. – Pizgarriak eta errefortzu positiboak ahalbidetzeko mekanismoak ezartzea, hondakinak murriztearekin konprometitutako jarrerak sustatzeko
Ura	<ul style="list-style-type: none"> – Instalazioetako ur-hornidura aztertu eta planifikatzeko plan bat egitea – Ura murrizteko helburu zehatzak markatzea – Instalazioetan edateko ura edukitzea, erabilera bakarreko plastikoen erabilera murrizteko – Beharrezkoa bada, komun lehorren erabilera sustatzea – Ura aurrezteko sistema bat ezartzea – Ur zikinen kudeaketa zaintzea – Uraren erabilera eta kontsumo arduratsua sustatzea eta horren gainean kontzientziatzea – Uraren erabilera murriztea sormen- eta kultura-industriekin lotutako produktuak produzitzeko industria-prozesuetan
Erosketak eta kontsumoa	<ul style="list-style-type: none"> – Erosketa eta kontratazio berdeen politika bat ezarri eta sustatzea instalazioekin zerikusia duen guztian <ul style="list-style-type: none"> · Jasangarritasun-irizpideei jarraitzen dieten hornitzaile eta produktoreekin kontratazio arduratsua sustatzea · Kontsumoa eta ingurumen-inkaktuak murrizteko irizpide eta jarraibideak formalizatzea

Aplikazio-eremua	Gomendio orokorrak
Erosketak eta kontsumoa	<ul style="list-style-type: none"> – Produktu jasangarri, berrerabilgarri edo birziklatuen erosketa lehenestea – Hurbileko produktuak erostea, bilgarri gutxikoak edo ekoetiketa daramatenak – Erosketa-prozesutik hondakinen minimizazioa kontuan hartzea – Eskaintzen edo behar diren kanpo-zerbitzuetan jasangarritasuna zaintzea (catering-a, jatetxe-arloa, garbiketak, merchandising-a, etab.) – Altzarietan, soinu-ekipoetan, argiztapenean, komunikazioetan, seinaleztapenean eta abarretan jasangarritasun-irizpideak ezartzea

Inplementaziorako erremintak

Ekintza-gida honekin batera erreminten bilduma bat eransten da. Zehatutako gomendioen implementazioan lagungarri izan daitezke erreminta horiek, kultura-alorreko erakunde eta eragileei bidea erraztuz beren jardueran ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak aplikatzen has daitezten. Bildutako erremintak antolatzen dira, kontsolidatuta daudenen eta oraindik garapen-bideak daudenen artean.

KONTOLIDATUTAKO ERREMINTAK

Dagoeneko kontsolidatuta dauden erreminten artean hartzen dira, batetik, ingurumen-ekintzarekin lotutako indarreko legegintza-esparrua, eta, bestetik, ingurumen-ziurtatzeko sistemak eta bereizgarriak, erakundeei ingurumenarekiko konpromisoa egiaztatzeko lana errazten dietenak gutxieneko estandar homologatuei esker.

Bi erreminta multzoek arau-esparru bat definitzen dute, eta erakundeak hura hartu behar dute oinarri legeriara egokitu nahi badute, edo bestela, ingurumen-errespetuko bereizgarri bat lortu nahi badute. Aspalditik indarrean dauden arauak dira, eta edozein produkzio-sektoretako erakundeek jarraitu beharreko oinarritzko estandarrak markatzen dituzte.



Indarreko lege-esparrua

Espainiako legeriak zabalki ezartzen du ingurumena babesteko neurriak aplikatzeari buruzko ekintza-esparru orokorra. Ingurumen-alorreko Espainiako legeria zabala da, baina lau lege dira bereziki garrantzitsuak dagokigun gaiaren harira:

- _Ingurumen-ebaluazioari buruzko → **21/2013 Legeak** Ingurumena arautzen eta babesten du oro har, eta ingurumen-inpaktua ebaluatzeko oinarritzko printzipioak ezartzen ditu.
- _Hondakin eta lur kutsatuei buruzko → **22/2011 Legeak**, industria- eta enpresa-jardueretan sortzen den edozein hondakin tratatzeko irizpideak ezartzen ditu.
- _Ingurumen-erantzukizunari buruzko → **26/2007 Legeak**, berriz, edozein jarduera-sektore ekonomikotako enpresek errespetatu beharreko ingurumen-betebeharrak biltzen ditu.
- _Berotegi-efektuko gas-emisioei buruzko → **1/2005 Legeak** berotegi-efektuko gas-emisioen eskubideak arautzen ditu, Kyoton ezarritako konpromisoak betetzearren.

Gainera, eremu autonomikoan, Euskadik → **10/2021 Legea** onartu zuen, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa, autonomia-erkidegoan ingurumena babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko arau-esparrua ezartzen duena.

Ingurumen-alorreko legeria espezifikoa sektoreari lotutako erakundeek kontuan hartu beharreko erreminta bat da, jarraitu beharreko jardun-eremua markatu eta mugatzeaz gain, ekiteko helburu edo jarraibide zehatzak ere ezartzen dituelako askotan.

Ingurumen-ziurtatzerako sistemak

Ingurumen-ziurtatzerako sistemak ere ezinbestean kontuan hartu beharreko erremintak dira, erakundeei bide ematen dietelako jasangarritasunarekiko konpromisoa objektibotasunez egiaztatzeko, eta horien artean nabarmentzen dira ISO Arauak, Europako Etiketa Ekologikoa, Europar Batasuneko Ingurumeneko Auditoria era Kudeaketarako Sistema edo zigilu lokalagoak, Erronka Garbia zigilua adibidez.

Ziurtagiri horietako batzuek ibilbide luzea egin dute, eta beste batzuk sortu berriagoak dira. Hala eta guztiz ere, egiaztatze-sistemak berak ahalbidetzen du, estandar homologatuen bitartez, erreminta horiek kontsolidatu moduan sailkatzea.

Nazioartean aitortza handiena lortu duten ziurtagirien artean **ISO Arauak** nabarmentzen dira, familia edo sailetan ordenatuta hainbat alderdi arautzen dituztenak. ISO 14000 arauak, edozein sektore ekonomikotako enpresa eta erakundeei aplikatutako ingurumen-kudeaketarekin zerikusia duten gomendioak biltzen dituzte. → **ISO 14001 Araua** da garrantzitsuenetako edo erabilienetako bat, eta enpresetan Ingurumen Kudeaketako Sistema bat abian jartzeko behar diren irizpideak argitzen ditu, baliabide eta hondakinen kudeaketa optimizatzeko eta enpresa-jardueratik eratorritako ingurumen-inpaktu negatiboak murrizteko xedearekin.

Beren borondatez ISO 14001 araua hartu nahi duten enpresa horien jasangarritasuna hobetzea lortzeko, ingurumen-plan bat sortzea eta inplementatzea proposatzen da, lortu beharreko elementuak eta xedek eta horiek lortzeko erabiliko diren erreminta eta prozesuak barne hartuko dituen. Erakundeetan arau hori aplikatzeak erakusten du ingurumena babestearen alde hartutako konpromisoa, ISO 14001 arauan oinarritutako Ingurumen Kudeaketako Sistema batek errazago egiten duelako hura darabilen erakundeak ingurumen-inpakturik eragin dezaketen jarduera, zerbitzu eta produktuak kontrolpean edukitzea.



ISO arau horrez gainera, beste ISO arau batzuk ere interes handikoak dira beren jarduera jasangarritasun-irizpideetara egokitu nahian dabilzan erakundeentzat. ISO 14004 arauak erakundeak gidatzen ditu ingurumen-kudeaketako sistemak inplementatu, mantendu eta hobetu bitartean; ISO 14010 eta ISO 14011 arauak ingurumen-auditoriak garatzeko jarraibideak ezartzen dituzte; ISO 14031 arauak ingurumen-jarduna ebaluatzeko jarraibideak ezartzen ditu; ISO 14060 arauak erakundeen produktuetan ingurumen-alderdiak sartzeko gida bat sortzen du; eta ISO 5001 arauak energiaren kudeaketa kontrolatzen du produkzio-prozesuetan.

ISO arauak nazioarteko egiaztatze-sistema bat osatzen dute, baina beste sistema batzuk ere badira. **Europako Etiketa Ekologikoa (EEE)** egiaztatzeko eta etiketatze ekologikoko sistema bat da, borondatezkoa izanik, ingurumenaren gainean inpaktu txikiago bat duten produktu eta zerbitzu jakin batzuk modu ofizialean ziurtatzeko helburua daukana. Gaur egun kultura-sektorea ez dago ordezkaturik arau horietan, baina aldian-aldian, produktu eta zerbitzuen kategoriak berrikusten eta eransten dira.

EEEr dagokionez, kultura-eremuak ingurumen-ziurtatzeko zigilu hori erabil dezake produktuen kontsumitzaile moduan, hau da, bere jardueraren garapenean, ingurumenarekiko arduratsuak diren produktuen erabilera hautatzeko. Gainera, sektoretik dagozkion eskaerak has daitezke sormen eta kultura-eremuari lotutako zerbitzu eta produktu jakin batzuk eransteko ingurumen-ziurtagiri hori lor dezaketen kategorien artean.

Europar Batasuneko Ingurumen Auditorien eta Kudeaketaren Sistema

Europar Batasunaren erreminta bat da, Ingurumen Kudeaketaren eta auditoria independenteen Sistema bat ezarri duten erakundeak aitortzen dituena, erakundeen ingurumen-kudeaketa hobetzeko konpromiso bat egiaztatuz.

EMAS Europar Batasunaren Ingurumen Auditorien eta Kudeaketaren Sistema lortzeko, erakundeek ingurumen-kudeaketako sistema bat eduki behar dute,

haren funtzionamendua jakinarazi behar dute eta erakunde independenteen bitartez egiaztatu. Ebaluazio hori gardentasun- eta konpromiso-jardun argia erakusten du hura aplikatzen duten erakundeen aldetik, eta gainera, etengabeko hobekuntzaren aldeko konpromisoa ziurtatzen du.

Nazioarteko arau eta ziurtagiri horiez gain, tokiko ingurumen-ziurtatzeko zigiluak ere badaude, jardunbide egokien berme gisa ere balio dutenak. Euskadiko testuinguruan, zehazki, IHOBek sustatutako **Erroka Garbia** zigilua nabarmentzen da, beren diseinu eta antolamenduan ingurumen-neurriak integratzen dituzten ekitaldiak ziurtatzen dituena beren garapenari lotutako inpaktu negatiboak kontrolatu ahal izateko.

Ingurumen-kalitateko zigilu horrek ardatz jakin batzuk lehenesten ditu, hala nola mugikortasuna, energia- eta ur-kontsumoa, erosketak, ekipiak, hondakinak... eta sektoriala da, hau da, bere jarduera jasangarritasun-irizpideetara egokitu nahi duten ekitaldiak antolatzeke erabil daiteke soilik. Zigiluaren helburua da bertaritzen direnak eta antolatzaileak kontzientziatzea, guztion artean, ingurumenerako inpaktu negatiboak murriztea lortzeko.

ERREMINTA EMERGENTEAK

Garapen jasangarriaren aldeko konpromisoa eta garrantzia gero eta handiagoa da, eta horrek erreminta emergenteen garapena ahalbidetzen du, sortutako inpaktuak ebaluatzeko eta erakundeak ingurumen-errespetuko irizpideetara egokitzeko bide ematen dutenak. Orientabide eta gomendio praktikoen gidak, inpaktu-ebaluazioak, ekintza-planen elaborazioa edo inpaktu-adierazleen existentzia nabarmentzen dira erreminta horien artean.

Ekintza-gidak

Jasangarritasunaren inguruko eztabaidaren bilakaerak ekintza-gidak ugaritzea ekarri du berekin, ingurumen-erantzukizuneko ekintzak aplikatzeko bidea antolatzeke eta arauak ezartzeko lagungarri.



Dauden ekintza-giden artean, batzuk kultura-sektorerako orokorrak dira, eta beste batzuk, berriz, zehatzagoak, kultura-eremuko azpisektoreei lotuak. Une honetan eskuragarri dauden ekintza-gidetako batzuk aipatuko dira jarraian:

Orientazio- eta ekintza-giden bilduma	
Gida orokorrak	
→ Euskal erakundeentzako oinarrizko gida	<p>Euskadiko edozein erakunderentzako gida orokor bat da, haren titulartasuna, tamaina, edo jarduera-sektorea edozein izanik ere, eta erakundeetan 2030 Agenda inplementatzeko gomendioak biltzen ditu, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko lagungarri.</p> <p>Gida irakurketa bikoitz batez diseinatzen da. Lehenbizi, GJHetarako hurbilketa bat eskaintzen du, eta bigarren, GJHak erakundeetan integra daitezela bultzatzeko erreminta gisa balio du.</p> <p>GJHak oso izaera eta eremu orokorrekoak badira ere, ingurumenari erreferentzia egiten dioten gomendioak soilik hautatzea baliagarri izan daiteke erreminta praktikoa moduan.</p>
→ Guía práctica para integrar la Agenda 2030 en el sector cultural (2030 Agenda kultura-sektorean integratzeko gida praktikoa)	<p>Ekintza-gida praktikoa hau orokorra da kultura-sektore guztiarentzat. Hainbat fase zerrendatzen dira hartan, kultura-alorreko edozein proiektu edo erakundetan jasangarritasun-ikuspegi bat integratu eta aplikatzeko prozesuan.</p> <p>Zehazki, neurrien zerrenda bat eskaintzen da gida horretan, eta neurri horiek hainbat alorretan inplementa daitezke (programazioa, espazio fisikoen kudeaketa, jarduerak...) kultura-eremuaren ekintza jasangarritasun-irizpideetara egokitzeko.</p> <p>2030 Agendari lotzen zaionez, gida hori jasangarritasunaren ikusmolde global batetik abiatzen da. Txosten honetan zehaztutako gomendioak jasangarritasunaren ingurumen-dimentsioan zehazten badira ere, kultura-erakundeen jarduera orientatzeko ekintza-gida egokia dela uste da.</p>
→ Liderazgo medioambiental en el sector cultural (Ingurumen-lidergoa kultura-sektorean)	<p>CONCAk txosten hau egin du Kataluniako kultura-sektorearen egoeraren erradiografia bat egiteko, klima-ekintzari lotutako estrategia jasangarrien jarrerak, ezagutza eta inplementazioa zertan diren azalduz, eta, bide batez, erakundeen eskura jardunbide egoki eta inplementazio-idea zehatzak jartzeko.</p>

Kultura-azpisektore zehatzetarako gidak	
→ Festivales de música y Agenda 2030 (Musika-jaialdiak eta 2030 Agenda)	<p>Gida hau Ekintza Plan bat da musika-jaialdiak Garapen Jasangarrirako Helburuetara egokitzeko, eta xede hori lortzeko bete beharreko gomendio eta ekintza multzo espezifiko bat zehazten du. GJH zehatzetarako gomendioak ezartzen ditu gidak, eta beraz, ingurumen-jasangarritasunerako atal zehatz bat dauka, Klimaren aldeko Ekintzari lotua.</p>
→ Oinarrizko Gida: ikus-entzunezko produktioetarako jasangarritasun-plana	<p>Ikus-entzunezko produktioak jasangarritasun-irizpideetara egokitzeko jarraitu beharreko ekintza eta gomendio espezifikoak zehazten dira gida honetan.</p> <p>Zehazki, ebaluazio-mekanismoak zehaztuko dituen plan zehatz bat egitea proposatzen da, gainera litezkeen neurri zehatzak azalduta.</p>
→ Manual de buenas prácticas ambientales: equipamientos culturales (Ingurumen-jardunbide egokien eskuliburua: kultura-ekipamenduak)	<p>Gida hau egin da → Kataluniako Generalitateak eskaintzen duen ingurumen-kalitateko berme-berreizgarria lortu nahi duten kultura-ekipamenduak gidatzeko, eta energia-hobekuntzarekin, materialen erabilerarekin, ura aurreztearekin eta soinu- eta argi-kutsadurarekin zerikusia duten zenbait neurri zehazten ditu, kultura-ekipamenduek beren jarduera ingurumen-irizpideetara egokitzeko aukera izan dezaten.</p>
→ Instrucción técnica para la aplicación de criterios de sostenibilidad en eventos (Ekitaldietan jasangarritasun-irizpideak aplikatzeko instrukzio teknikoak)	<p>Bartzelonako Udalaren instrukzio tekniko bat da hau, ekitaldietan ingurumena zaintzeko eta kulturaren eta jasangarritasunaren aldeko lotura sustatzeko sortua. Administrazioek ekitaldiak antolatzean aplikatu beharreko jasangarritasun-irizpideak definitzen dira instrukzio honetan.</p>

Horiek dira une honetan eskuragarri dauden gida adierazgarrienetako batzuk, baina espero izatekoa da denborarekin gero eta ekintza-gida praktikoa sektorial eta orokor gehiago garatzea, aktore publiko zein pribatuek garatutako kultura-erakundeetan jasangarritasun-irizpideak aplikatzen hasteko erreminta gisa erabili ahal izateko.

Inpaktu-ebaluazioak

Kultura-inpaktuko ebaluazioak egitea da kultura-jarduera eta kultura-proiektuen jasangarritasuna hobetzeko baliagarri izan daitekeen beste erreminta bat.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan kezka areagotuz doa giza jarduerak ingurune naturalean dauzkan efektu suntsitzaileak direla-eta, eta kezka horren harira sortu da ebaluazio mota hau, proiektu edo jarduera baten etorkizuneko efektuak iragartzeko xedez, horrela babes- eta hobekuntza-ekintzak aurreratu ahal izateko. Inpaktu-ebaluazioek identifikazioko, iragartzeko, eta, azkenik, ebaluazioko prozesu bat txertatzen dute, proiektu eta jarduerak ingurumenean ahalik eta ingurumen-inpaktu negatiborik txikiena izan dezatela ahalegintzeko.

Hasteko diagnostiko bat egiten da, garatu beharreko jarduerak izan ditzakeen efektu negatiboen gainean, eta simulazio batzuk ere bai, politika edo ekintza berri bat gauzatuz gero zer gerta litekeen ikusteko; jarraian, proposamen, erabaki eta konpromiso espezifikoak garatzen dira, dagokion jardueraren esternalitate negatiboak arintzen ahalegintzeko.

Ingurumen-inpaktuko ebaluazioa prozesu egituratu eta arautu bat da, ingurumen-inpaktu baten adierazpen bat eta ingurumen-inpaktuko txosten bat argitaratuz amaitu behar dena. Erakunde asko ez daude behartuta horrelako inpaktu-ebaluazioak garatzera, baina tresna baliagarriak izan daitezke jarduera ingurumen-jasangarritasuneko estandarretara egokitzeko bidean.

Ekintza-planak

Planifikazio egoki bat ere funtsezko erreminta bat da, kontuan hartu beharrekoa. Erakundeen barruan jasangarritasun-gaiei lotutako plan estrategikoak eta ekintza-planak egiteak helburu zehatzak ezartzea ahalbidetzen du, onargarriak eta ongi dimentsionatzeko modukoak.

Ekintza-planak egiteak, berriz, konpromisoak hartzea dakar, eta zer lortu nahi den zehazteko ahalegin bat egin beharra. Horrelako dokumentuek hausnarketa-prozesu bat sustatzen dute, eta horrek errazago egiten du erakunde osoa prozesuan inplikatzeko.

Ekintza-planek helburu onargarriak izan behar dituzte, denboran ongi banatuak, eta ebaluazio zehatz bat ere aurreikusi behar dute, ekintzak berriz definitzea eta hobetzeko proposamenak egitea ekarriko duena.

Inpaktu-adierazleak

Ingurumen-jasangarritasuneko adierazleak dira ingurumen-erantzukizunarekin zerikusia duten hobekuntzak modu kuantifikagarrian ebaluatzeko bide ematen duten erremintak, garatzen duten jarduerak, zuzenean edo zeharka, ingurumenean zenbaterainoko eta nolako efektuak dauzkan aztertzeko bide ematen duten heinean.

Ingurumen-adierazleak eta garapen jasangarriko adierazleak sendotze-prozesuan daude, eta enpresa edo produktu zehatzen gainean aplikatzen dira normalean. Alabaina, badago aukera ingurumen-erantzukizuneko adierazleak sormen- eta kultura-industriaren esparruan garatutako zerbitzu, jarduera, produktu eta ekitaldietara egokitzeko.

Erakunde baten ingurumen-erantzukizuna neurtu eta kalkulatu nahi badugu, oinarriko lau adierazleren aplikaziotik abiatuta egin dezakegu: aztarna ekologikoa, karbono-aztarna, aztarna hidrikoa eta ingurumen-aztarna.

Aztarna ekologikoa

Aztarna ekologikoa adierazle bat da, giza jarduerak lurreko baliabideen gainean zenbateraino eragiten duen neurtzeko bide ematen duena, eta biztanleko hektareen arabera neurtzen da. Edozein erakunderen jarduerak eskatzen du baliabide natural jakin batzuk eskuragarri edukitzea, baina baliabide horien kontsumoak gainditzen baditu espazio eta denbora horretan sor litezkeenak, baliabideak urriak izango dira, modu naturalean sor daitezkeenak baino baliabide gehiago kontsumituko direlako, eta modu naturalean xurga daitezkeenak baino hondakin gehiago sortuko direlako.

Aztarna ekologikoaren adierazleak aditzera ematen digu giza jarduerak ekosistema naturalean eragiten duten inpaktua. Hasiera batean, aztarna ekologikoa herritar kontsumitzaileari begirako adierazle baten modura definitu zen. Alabaina, erakundeen jardueraren bitartez ere kalkula daiteke, haien jarduerak eta erosketa-, produkzio-, kontsumo- eta salmenta-prozesuak ingurumen-inpaktu argia eragiten duten heinean. Adierazle hori erakunde eta enpresetarako kalkulatzeko bada, aztarna ekologiko korporatiboa deitzen zaio.



Karbono-aztarna

Karbono-aztarna adierazle bat da, jarduera bat egitean isuritako berotegi-efektuko gasak kalkulatzeko bide ematen duena. Adierazle hori kalkulatzeko erakunde baten jarduerak zuzenean zein zeharka isuritako berotegi-efektuko gasak batuz, eta CO₂ balokideko masa da haren unitatea.

→ **ISO 14067 Arauak** arautzen eta ezartzen du karbono-aztarna kalkulatzeko nazioarteko erreferentzia-esparrua. Erakunde baten jarduera osorako, ekitaldi baterako, jarduera zehatz baterako eta abarrerako kalkula daiteke adierazle hori.

Aztarna hidrikoa

Aztarna hidrikoa adierazle bat da, erakundeek zuzenean zein zeharka erabilitako ura kuantifikatzeko balio duena. Adierazle hori kalkulatzeko denbora- edo masa-unitatearen arabera erabilitako ur-bolumen kontsumitu edo kutsatu zein lurrunaren bitartez, eta funtsezkoa da giza jarduerak ingurumenean eragiten duen inpaktua aztertzeko.

Aztarna hidrikoaren kalkulari lotutako printzipio, betekizun eta jarraibide zehatzak → **ISO 14046 Arauan** daude jasota, → **ISO 14044 Arauan** zehaztutako produktuen bizi-zikloaren analisi zehatzean oinarrituta (zerbitzu eta jarduerak produktu gisa ere aintzat hartuta).

Ingurumen-aztarna

Ingurumen-aztarnak ebaluatzen ditu produktu batek edo zerbitzu zein erakunde batek, oro har, ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak, produktu batek zein zerbitzu edo jarduera batek bizi-zikloan sortzen duen inpaktua neurtzen duen neurrian. → **ISO 14040 Arauen** sailean zehaztutako bizi-zikloaren analisisian oinarrituta kalkulatzeko da adierazle hau.

Erakundeei dagokienez, ingurumen-aztarnak erakundearen jardueraren bizi-ziklo osoan jartzen du arreta nagusia, haren ingurumen-inpaktua murrizten ahalegintzeko.

Adierazle horien balioak ezagututa, erakundeek horiek murriztu eta egokitzeko estrategiak jar ditzakete abian. Horrelako ingurumen-adierazleen presentziak erakundeek ekintza kuantifikatzea ahalbidetzen du ingurumen-jasangarritasunaren hondamenari dagokionez, eta, horren arabera, egoera hori hobetzeko bidean lan egin daiteke, modu zehatz eta gidatu batean.



BLOKEA 3: Hausnarketak eta ondorioak

Egungo mundu-testuinguruak agerian uzten du beharrezkoa dela urgentziaz jardutea errespetuzko garapen jasangarri bat lortzeko. Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzea asmo handiko zeregin bat da, baina mundu-mailan hartutako konpromisoak erakusten du ibilbide-orri komun baten alde egiteko borondatea dagoela.

Egungo larrialdi-egoeraren aurrean, beharrezkoa da jarduera ekonomikoko sektore guztiek, kultura sektorea barne, jasangarritasun-estrategia baten alde egitea, eta kultura-sektoreak apustu ausart bat egin behar du jasangarritasunaren alde, bere jarduera ingurumen-errespetuko irizpideetara egokituta.

Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko lotura argia da, baina praktikara eramateko eztabaida hasi berritan dago oraindik. Ikusi dugunez, kultura-sektoreak garapen jasangarriaren sustapenean duen garrantzia teorikoki zentratuz hasi zen eztabaida, eta, esplorazio teorikoan denbora bat eman ostean, gida praktikoen eta ekintzarako giden elaborazioan zehaztu zen.

Espanian egindako inplementazio praktikoko gida gehienak musika-jaialdiei eta ikus-entzunezko produkzioei begirako ekintza-gidak izan dira. Jarduera masiboak eta jarduera industrializatuagoak bi ekintza-eremu eztabaidagarrienak dira ingurumenaren kutsadurari dagokionez (ikus 3. taula), baina ingurumen-jasangarritasuneko betekizunetara egokitzeko ekintza gehien burutu dituzten jarduera-sektoreetako batzuk ere badira, aldi berean.

Ekitaldi masiboak antolatzea, jaialdi edo produkzio handiak adibidez, jasangarritasun-irizpideen aurka doa, haien kontzeptualizazioaren unetik beretik. Jasangarritasun-irizpideak txertatzen gehien ahalegindu diren jarduera-eremuetako batzuk badira ere, birplanteatu eta birdefinitzeko premiarik handiena duten ekitaldietako batzuk ere badira, aldi berean.

Lehengaien erabilera eta produkzio-prozesu sarritan kutsatzaileak behar dituzten industria-jarduerak ere, argitalpen-industriak edo modak adibidez, ahaleginen beharra ere badute, produkzio-prozesuen oinarria eta lehendik dagoen negozio-eredua birpentsatu eta zalantzan jarri ahal izateko, produkzio modu jasangarriagoen alde egitearren.

Sektore horien erronka nagusia da berez jasangarriak ez diren jardunbide, proiektu eta ekitaldiak jasangarri bihurtu beharra, eta, ildo horretan, inpaktu negatiboak konpentsatzeko neurriak hartzea.

Gutxiago kontsumitzen duten jarduerak dituzten kultura-sektoreko eremuak ez dira hainbeste ahalegindu jasangarritasun-irizpideetara egokitzeko, nahiz eta ingurumenarekiko kontzientziazioaren gorakadak eta klima-krisia eta antzeko gaiak iritzi publikoan etengabe agertzeak edozein jarduera ekonomikotan zuzenean edo zeharka eragiten duten.



Kulturak garapen jasangarriaren alde egiteko ahalmena ez da mugatzen jarduera-azpisektoreak ingurumen-errespetuko irizpideetara egokitzea.

Kulturak gizartea eraldatzen laguntzeko duen ahalmena ukaezina da, hainbat esparrutatik narratiba berriak bultzatuz ditzakeelako, mentalitatea aldatzeko eta jasangarritasunaren eta ingurumen-errespetuaren aldeko aldaketa orokorrak bultzatzeko lagungarri izan daitezkeenak. Kulturak mundua ikusteko moduan eragiten du, eta mundua eraldatzeko exigentzia etiko eta politiko batean. Egundoko laguntza ematen diogu espezie gisa dauzkagun erronkak interpretatzeko eta paradigma berriak aurkitzeko. Horretarako, ezinbestekoa da kultura-sektorea eredu-garri izatea eta errepikatzen moduko ereduak ezartzea. Baina ekarpen globalago eta transbertsalago bat egin beharra ahaztu gabe, inondik inora.

Kulturak munduko garapen jasangarriaren alde egiteko duen ahalmenean benetan sinisteak kultura-politika aldatu beharra dakar, baita aldaketak inplementatzeko prest dauden erakundeei prestakuntza, akonpainamendua eta finantzaketa ematea, aurrera eramandako inpaktuak eta neurriak ebaluatzea, soluzio berriak ikertzea, sektorea baterako aurrerapena sustatzeko koordinatzea, etab.

Gida hau baliagarri da beren jarduera ingurumen-erantzukizuneko irizpideetara egokitu nahi duten kultura-alorreko enpresa, erakunde, entitate edo eragileen ekintza orientatzeko, baina ezin dugu alde batera utzi erabaki politikoak hartzeko eremuak ere atxiki beharra, sektore osoan jasangarritasuna sustatu eta bultzatzeko kultura-politikak egitearen aldeko apustu kolektibo bat egitearren. Eremu publikoak eta sektore pribatuak batera jardun behar dute, soluzioak emateko eta mundu-mailan garapen jasangarri baten alde egingo duten ingurumen-jardunbide egokiak garatzeko.



Erreferentziak

- ALÁEZ, I. (2020). "Incorporar la sostenibilidad a la práctica de la gestión cultural".
- NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA (2000). "Milurtekoaren adierazpena".
- BALTÀ, J., BASHIRON, H. (2022). "Cultura, medio ambiente y emergencia climática. Cómo actuar en el ámbito de la gestión y políticas culturales locales".
- BASQUE GREEN FILM (2022). "Plan de sostenibilidad para las producciones audiovisuales".
- CULTURE2030GOAL KANPAINA (2018). "Cultura y Paz".
- CULTURE2030GOAL KANPAINA (2019). "La cultura en la implementación de la Agenda 2030".
- CULTURE2030GOAL KANPAINA (2019). "El futuro de la cultura".
- CULTURE2030GOAL KANPAINA (2020). "La cultura y la pandemia de Covid-19".
- HIRIEN ETA TOKIKO GOBERNUEN BATASUNA (2004). "Agenda 21 de la cultura".
- HIRIEN ETA TOKIKO GOBERNUEN BATASUNA (2010). "Cultura, cuarto pilar del desarrollo sostenible".
- HIRIEN ETA TOKIKO GOBERNUEN BATASUNA (2015). "Cultura 21 Acciones"
- HIRIEN ETA TOKIKO GOBERNUEN BATASUNA (2018). "La cultura en los objetivos del desarrollo sostenible. Guía práctica para la acción local".
- HIRIEN ETA TOKIKO GOBERNUEN BATASUNA (2018). "Patrimonio Cultural y Desarrollo Sostenible".
- HIRIEN ETA TOKIKO GOBERNUEN BATASUNA (2021). "El papel de la cultura en el desarrollo resiliente al clima.
- EUROPAKO BATZORDEA (2007). "Agenda Europea para la Cultura".
- EUROPAKO BATZORDEA (2018). "Nueva Agenda Europea para la Cultura".
- CONCA (2020). "Lideratge mediambiental en el sector cultural i creatiu català"
- FELIU, E., GARCÍA, G., GUTIÉRREZ, L., ABAJO, B., MENDIZABAL, M., TAPIA, C., ALONSO, A. (2015). "Guía para la elaboración de Planes Locales de Adaptación al Cambio Climático"
- GENERALITAT DE CATALUNYA (2015). "Manual de bones pràctiques ambientals".
- EUSKO JAURLARITZA ETA UDALSAREA 21 (2018). "Euskadi Basque Country 2030. Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei".
- EUSKO JAURLARITZA (2018). "Euskadi Basque Country 2030 Agenda, euskal ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari".
- ICEC (2021) "Pla C Cultura pel Clima. Pla de sostenibilitat ambiental de l'ICEC".



- IHOBE (2017). "Ingurumenaren aldetik jasangarriak diren ekitaldiak antolatzeko eskuliburua"
- MARTINELL (2020). "Cultura y Desarrollo Sostenible. Aportaciones al debate sobre la dimensión cultural de la Agenda 2030".
- NAZIO BATUAK (1987). "Nuestro futuro común"
- NAZIO BATUAK (2016). "Nueva Agenda Urbana"
- HEZKUNTZA, ZIENTZIA ETA KULTURARAKO NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2020). "Indicadores Cultura 2030".
- KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA (2017). "Eragin-azterketen ikerketa".
- GARAPENERAKO NAZIO BATUEN PROGRAMA (2015) "Objetivos de desarrollo sostenible".
- REDS (2021). "Objetivos de Desarrollo Sostenible y sus metas desde la perspectiva cultural".
- REDS (2021). "Hacia una cultura sostenible. Guía práctica para integrar la Agenda 2030 en el sector cultural".
- UDALSAREA 2030 (2019). "Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik: Gida praktikoa".
- UDALSAREA 2030 (2021). "Euskal Udallerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei".
- UNESCO. (2017). "Informe Mundial sobre la cultura para el desarrollo urbano sostenible".
- VARELA, F., ÁLVAREZ, B., CORTÉ, J. (2020). "Guía para la localización de la Agenda 2030".
- VÁZQUEZ, P., ARROYO, M. (2020). "Plan de Acción para la adaptación de los festivales de música a la Agenda 2030".

